NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA



Fermin Irigaraien Jaiotetxea

Gure Ama Lurra

AURITZE TA AUÑAMENDIKO AIZE OSASUNGARRIAK

Euskalerrian atseden toki zoragarri bat balin ba dago, erri au da. Euskeraz Auritz bere izena, Burgete erderaz. Zelai galanta batean agertzen zaigu, mendi ederrez inguratua. Auñamendi tartean dagon zelairik aundiena ementxe arkitzen degu. Baso galantak bertan eta iturri goxeak nunai. Aizea bai bikaina, tokia alaia, laiño zuria ateratzen danean Auñamendiko usaia bertaraiño ekartzen du Belarra ere ez bakarrik polita, baita usai gozokoa. Erri atzetik igarotzen da Urrobi ibaia, lasai ta ixtillurik gabe. Elurra asten danean, luzaro irauten du; batzuetan illabeteak bertan geldítzen da, lo ba lego bezela.

Erria, kale luze batean degu eratua. Etxeak arrizkoak, tellatu luzekin jantzita, zapel eder batzuen antzekoak dituzte; tellatu batzuek arbelazkoak eta besteak tella gorrikoak. Ia etxe guztien arpegiak desberdiñak ditugu, ez eso zabalak bainan atzeko aldera bai luzeak; etxe barrenak bai erosoak; sukaldeak Euskalerrian dauden ederrenetakoak. Irigarai etxeak adibidez, ba du ikusteko moduko sukaldea, lenago zan bezela gordetzen dute.

Eliza ta frontoi itxia, erri erdian daude. Gaur 72 sendi ta 400 biztanle bizi dira. Lurgintza, baso ta kanpotarretik ateratzen dute bizi bidea. Ba daude bi ostatu, lau jantoki, zazpi edantoki ta ogeita amazazpi sendi aberedunak. Orain arte, aragia ta basoa ziran lurgintzaren oñarriak. Gaur berriz, lur sagarrekin asi dira lanean, jo ta ke. Garo lekutan patata soroak aldatzen dituzte. Bertako erretorak, lur sagarraren koperatiba bat sortu du. Lana elkarte ortan, 37 sendi sartu dira.

Erriko Etxeari eskatu diete lurra eta orrela, zazpi lur zati ederrak artuta dauzkate, bat 300 errobadakoa eta bestea 80 koa. Joan dan urtean, 420.000 kilo patatak bildu zituzten eta 4'20 pezetetan saldu. Garbi ikusten dana da, lurra eiek oso egokiak direla lur sagarrentzat.

Erretoraren bitartez ere kulturaren gosea sartu da erri ontan. Ia gazte danak ikasten ari dira. Leizako nekazari eskolan lau mutil ba daude izanak. Burladako lan bide eskolan ari ikasten geinak; danetara 40 gazte.

Eliza berritu dute eta ez nolanai. 1612 garren urtekoa degu. Ikaragarrizko buruaustea zeukaten, ezetasuna edo umedadeakin. Ormak usteltzen zijoazten. Azkenian, Frantziko inbento baten bidez, ormetan ur bide batzuek sartuak, legortu dituzte arront. Dorrea, berria da; 1948 garren urtean egiña. Erreteula zarra bota zuten, ustelduta ezertarako etzala gelditu zalako, Bariko San Nikolasen iduri eder bat bakarrik daukate. Santu onen izena daramaki elizak.

Erri zoragarri au, udaran arrotzez bete betea egoten da. Etxe geienetan artzen dituzte kanpetarrak. Atzerritarrentzat agertzen duten zaletasuna ez da gaurkoa. Santiagora zijoazten erromeslariak, beren etxetan artzeko oitura ba zuten aspaldiko artzaiak. Gaurko kalean barrena zijoan gáltzara zarra. Gaur ostatuak dauden tokietan, orduan gaxotegiak zeuden. 1794 garren urtean, erreak izan ziran Frantziakin izan genuen gudan.

Erri onek ba du euskal usaia. Sartu ezkero, bertako jendiakin euskeraz asteko gogoa ematen du. Ba euskera ia galdua dago. Zarrak ba dakite eta bizpairu sendietan oraindik egiten da. Gaztentzat eta aurrentzat, arrotza da gure izkuntza. Ortaraño iritsi dira, poliki, poliki, konturatu gabe. Ez da gaurkoa euskeraren aldapa bera au. Erdera, aspaldi elizetan sartu zuten; euskera gutxiegi iduritzen zitzaion nunbait. Orain dala irurogei urte, itzaldiak euskeraz egiten zituzten. Udarako kanpotarra geienak, nola erderaz mintzatzen ziran, erritarrak aiei begira zeuden eta aiek bezela egin bear.

Oraindik 1948 garren urtean frontoia berritzean, bersolariak ekarri zituzten, baita pozik ontzun ere. Azkeneko anaien borroka nagusia arte, txistua jotzen zuten eta dantzak erakastera aoitzetik Paternain etortzen zitzaien.

Esan dezakegu, gaur orain dik, etxe batzuetan maite dutela euskera. Auek, gauza txarra bat, inguruko giroa dana arrotza. Nunbaitik sua ekarri bearra dago, berriz pixtutzeko.

Nafar euskalzale aundi bat, bertako semea degu. Bere izena jaiotzez, Pablo Fermin Irigarai Goizueta ta bere idazle izena "Larreko". 1868 garren urtean jaio zan, Martin Zurginenea etxean. Sendagille egin zan. Beran, Iruritan eta azkenean, Iruñako gaxotegi nagusian lana egin zuan. Gizona bezela, oso ona ta ziñezkoa zala esaten dute; kristaua egizkoa gaiñera. Sendagille bezela egindako lanegatik Nafarroak zorra aundiak ditu berari ordaindu bearrak. Gaxotegi berria gizon onen bidez egin zan eta ango zuzendaria izana da. Ebakunzlari edo zirujano bezala lana egiten zuan eta esan dezakegu Nafarro osoa bere eskuetan igaro dala. Bere gaxoak ez dute aztu; orain dik gutxiago beartsuak. Bere seme alabak ba lira bezela artzen zituan. Bere lanbidean oso argia omen zan. Gainera, nola ez?, euskalzale sutsua genuen ta idazle benetakoa. Euskera ondo zekin eta nafar euskeraz idazten zuan. Euskal elertia aberastu zigun. Beste askoren artean ortxen ditugu bere bi lana bikaiñak, "Euskaldun Bioztuna Mexicon" eta "Feminismoaz". 1948 garren urtean il zan. Euskaldunak, pozik mintzatzen ziran berakin euskeraz, Iruña ko gaxotegian eta gure Fermin aspertu gabe jarduten zan solasean. Ez dakigu oraindik ondo zenbat balio duan euskeldun sendagille batek. Udara garaian, Aragoira Pantikosa aldera joaten zan. Ango aize ederretaz ba ditu lana batzuek egiñak.

Udajende artean ere ba zetozen Auritzera euskalzale berexi batzuek. Oloriz senar emazteak urtero agertzen ziran. Etxe polita bat egin zuten, oraindik zutik dagona, Orreagaruntz goazela azkena ezker aldean. Oloriz emazteak, il zanean, utzi omen zuan ikastola bat egiteko, euskeraz ikasi dezaten bertako aurrak. Asmo au bete gabe gelditu da. Idazle ta gizon espetsu onek, Ermilio Olorizek baditu idatz lana ederrak egiñak, Nafarroko askatasunari buruz eta Azpilkueta jakintsuagaz. Gaiñera olerkaria zan. Euskeraz gutxi, bainan aurrei, gauzen euskal izenak galdezka ibiltzen zan.

Olorizen etxera askotan etortzen zan Arturo Kanpion, Nafarroak izan duan euskalzalerik aundiena eta etxe ortan idazten ibiltzen zan. Orregatik ezagutzen zituan ain ondo orko bazterrak eta ain ondo ere eman digu lurra oien usaia. Oloritzen etxeak ba du Euskalerriarontzat berexitusun aundi bat.

Erri onek ere ba ditu bere dantza berexiak, S. Juan bezperan oraindik dantzatzen dituztenak. Xeetasun aundiagoak izatearren, Aita Riezuri eskatu nizkion ango berriak eta euskalzale jator onek baita eman ere. Aita Donostiren idazkitegitik utzi zizkidan papera batzuek. Dantzaoiek "liturgi" baten antzekoak dira.

Aspaldi, gerra aurretik, Almandozko txistularia, Jose Angel Dorremotz etortzen zitzaien urtero erriko jaietara mendiz. Gazteak bere billa, Ipetea iturriraño ateratzen zitzaizkioten. Andik txistuakin "karrika doñua" joaz, sartzen zan errian. Lendabizi agintariak agurtzen zituan. Suak etxe aurretan pixtu ondorean, mutil dantza jotzen zuan. Gero San Juan iduriari, ogi bat jartzen zioten eskuetan. Ondorean "eztai" doñua joaz, errekara arpegia bustitzera zijoaztep danak eta andik ekarrita, etxe atarietan elorri adarrak jartzen zituzten. San Juan egunean, ogia gazta ta ardoa banatzen zien. Atsaldean "eskila fraile" dantzatzen zuten ta ondorean" pañulu ta andre" dantza.

Jaietako irugarren egunean, alera ate zituzten aria ta antzumea. Ari gainean zatarrezko gizontxo bat zeramaten. Iduria erre ondorean, aria gazte guztien artean jaten zuten.

Azken egunean Erri Etxeko maia gainean jaien buru ibilli zan mutillak eskuan edontzia ardoz betea artuta ta zapi bat zitula, mutur batetik bestera dantzatzen zan eta urrengo urteko jaien zuzendaria aukeratzen zuan. Ikusi bear da, xeetasun guztiekin nolako maitasunakin aipatzen dituan bere idazkietan, jaia auek Agustin Irigaraiek.

Uste dugu, orrelako euskal bizitasuna izan duan erriak, ezin duala betiko euskera baztertu. Lo ba dago, pixtuko da.

Lenengo gauza egin bearra erri ontan; Pablo Fermín Irigarairi emenaldi bat ondo antolatu. Orrelako gizon jatorrak, sendagille ospetsu ta idazle onak oroitarri bat merezi luke bere errian. Aitzaki orrekin ez lit zake gaizki izango, Olorizen etxean Ikastola bat irikitzea. Ba dakit ez dala errexa izango. Jakin bear lutekena da orrelako erri batentzat euskera oñarri berexia dala ta bere nortasunari indarra ematen diola. Erria aberatsa da; basoak ezin ederragoak. Merezi luke ba diru orrekin ere euskerari laguntzea.

LATXAGA

Mondragoeko ALFABETATZE taldeen Biltzarra (I)

Joan den Eguberri aurreko atsalde batez, Arrasaten ziren, Alfabetatze —talde geienak bildu. Batzarrean zeuden gazteeri, Euskalzaindiko Ordezkaria denak, solas bat egin zieten. Alfabetatze— ikastaroetan erabili behar diran Ikasbideak azalduz. Honara ekartzen ditugu, hemen ere abiatzeko diran Taldeen onerako.

ALFABETATZEA, irakurtzen ezdakiten euskalduneeri, euskaraz irakurtzen irakastea da. Zeregin hori, ardura andikoa da, liburuek edadura andiago bat artuko badute, erreka jo gabe, imprimatze gastoen aldetik.

Eginkizun hori, Euskalzaindiak plantatu zuen, duela laupabost urte.

Asieran, Rikardo Arregi zenarekin batean, talde gutti genuen, baina orain edamen andia artzen ari da, eta Euskalzaindiak, bere gauza propioa den bezala, urbiletik segitu nai du.

ALFABETATZE izena Alpha eta Beta greko letretatik asmatu genuen, itza erreztatuz. Bizkaian eta Gipuzkoan dozena bat baino geiago Talde ari dira; Talde bakoitzak Ikastaroak abiatzen ditu, Klase bakoitzean 15-25 eta geiago ikasle sartzen dirala; Irakasle edo buru egiten duen baten menean bizpairu ilabeten luzetasuneko kursilloetan.

Taldeak eta Irakasleak Euskalzaindiaren babesean ari dira, gure Akademiak lehenbizikotik markatutako irakasbideak segituz, texto autatu batzuen bidez. Talde horiek, eskualdeka biltzen dira. Deba erreka aldeko hiriak adibidez, Oñati, Mondragoe, Bergara, Eibar abar sartuz.

Berdin Urola aldean, Oriakoan, Goierrin eta bestetan. Berdin Bizkaian. Gernika eskualdean, Arratian, Durangokoan. Gastehizen ere Talde bat bada, eta Iruñe-Nafarroan ere abiatzekotan daude. Eskualde bakoitzeko erresponsable batek Akademiaren ordezkariari berriak ematen ditubai eta Ikastaroen gora beherak. Azken aldi hontan, Talde bakar batzuek ezdituzte Euskalzaindiaren textoak erabiltzen; bere gisa dabiltza, eta eskubidea badute, Euskalzaindiaren menetik at ibiltzeko.

Ikastaroak edo Klaseak, lekuko euskalkitik asten dira, hor euskera bizirik badago; hortan irakurtzen ongi ikas ondotik, beste euskalki nagusi batera pasatzen dira, hau baita bide segurena, batasun-izkera batean abiatzeko. Euskera bizirik ez dagon tokietan, batasun euskera hortatik has leike, Irakaslea gai baldin bada horretarako, (urbileko euskalkia iñolaz ere ahaztu gabe) Iruñe, Gastehiz edo Lizarra bezalakoetan.

Bilbon eta inguruetan, bizkai euskalkitik astea obe uste dugu, laster gero batasunekora pasatzeko. Gramatika-teoria sartuz apurbat, berehala danik, texto errez eta atsegin batetik irakurtzen has (gero aipatuko nolako textotan). Sintaxi problemak eta esaldi zaillak agertzen diran bezala, dohazkon deklinabidea edo aditz-regimenak esplikatuz. Baita erderara itzul, eta er dal esaldiak euskeratu.

Alfabetatze ikaskintza, euskalduneeri txoilki irakurtzen irakasteko da, ahal bezenbat ikasle zahar eta gazteeri; orain goienaz 800 bat edo milla bat irakurle baldin baditu euskal liburu berri batek, 5 miletara aillegatzeko xedetan ari gara. Beráz, edozein ideietako ikasle sartzen al izateko klasetan, atea zabala utzi behar dugu, eta textoak, geienek gustatzeko modukoak; atsegiñak, ulerterrezak, fonetismorik gabekoak, euskera jatorrekoak, liskarbidetik kanpokoak, bai eta zensura batetik pasatzeko modukoak, Euskalzaindiaren menean baigaude.

A. APAT-ETXEBARNE
(Jarraituko da)

AXULAR SARIA

JESUS-EN ETORRIE

Egun batez etxe batean bizi ziren aita eta ama bi neskatikokin, zarrenak bazituen hamar urte eta gaztenak sei Aitak biali ziuen bi neskatikoak mendire egur eske astoakin eta ateratu ziren etxetik ungi beztituek eztu gabe. Bidean bazazileik hasi zen lanotzen eta neskatikoak ganak ziren goitisko banc lanoa kendu zen segidoan. Allatu zirelaik etxera aldatu ziren bustiek baiziren. Eguerdi allatu zen eta hasi ziren bakaltzen eta gero gan ziren siestara.

Tan tan yo zuten atean eta aita yaiki zen goatzetik, ereki zuen atea eta bazen neskatiko bat bazaiela mendire egur eske. Ari zelaik solasean hasi zen elurre eta gizon harek sartu zuen barnera. Yaiki zirelaik bi neskatikuak amak biali zituen herrire mandatu eske. Bidean bazazileik arpatu ziren andre batekin eta mutiko bat besotan. Andre harek erran zion neskatikoai herrian:

—Sortu da Belenen Niño Jesús.

Eta orduan neskatikuak gan ziren etxera tarrapataka eta amak erran zion:

—karri tuzue mandatuak?

—Ez, andre batek erran daku herrian, sortu dela Niño Jesús.

Eta orduan denak ateak etxite gan ziren. Aitak hartu zuen bildotsa, amak eta neskatikuek bertze gauzak.

Eta hunten akabatzen da.

DOMINIKA ETXART
ERRATZU 11 urte

ATSOAREN INDARRA

Aspaldi bazen gure herrien atso xar bat etxez etxe ibilzen zena, iakiten zituen herriko berri guziek. Etxera gaion zenean bere buruekin mar-mar solasian ibiltzen zen, berriz erranez kanpoan ibiliko solas guziek. Atsetan gizon bat gaten zitzaion sukeldeko turrut ondera, kanpotik haren solasak entzutera. Atsoak sagarrak erretzen zituen gauero. Bein batez sagar batek muiñ aunitz bota zuen autsera, orduen asertu zitzaion atsoa ta eran zion:

—Kaka ta kaka ari aiz? Intenteko ianen aut ire kaka kuziekin.

Xurut ondoan totoriko zagon gizonak berari erran ziola uste baitzuen lasterka ies gan ta betiko utzi zituen xurrut ondora urbil ibiltzeak.

Barrandan ibiltzen denak nai ez duena aitzen du.

Jesús María IRIARTE
ARIZCUN Bederatzi urte.

OLORIZ'EN ETXEA

EUSKALERRIAN BARNA



Euskal Liburuak

Gero ta euskal liburu gehiago argitaratzen direla gauza nabarmena da. Izan ere gure euskal literatura zabaltzen ari da gure gaurko egunetan eta maiz euskal liburu berriak azaltzen dira.

Argitaratu berri diren azken liburuen artean aipagarrienak, nerez ustez, bi hauek dira: «Hegatsez» izenekoa, eta «Amazonetako Indioak deitua.

Ioan berri diren Abenduko 18 eta 19'ean Arrasate'ko herrian (Mondragón erderaz) «Euskal Disko eta Liburuaren Feria» izan zan. Bertako Herriko Etxeak eta «Denok» Kultura Erkarteak izan ziran antolatzaileak. Feria hontan lehen aipatu ditudan bi liburu hoiek ezagun erazi ziran.

Lehenego liburua: «Hegatsez» delakoa, Eibar'eko Ion San Martin euskal Akademiko eta Serafin Basauri jaunak idatzia da. Jaun hauek liburuaren hitzaurrean ongi esaten duten bezala gaur eguneko euskal idazleen loretegi bat da. Lehenbizikoz erderaz idatzitako «Escritores euskerikos» izeneko katalogo bat prestatu eta argitaratu zuten eta orain euskeraz izkribitutako «Hegatsez» deitzen den liburu hau argitara eman dute. Liburu hontan gure egunetako euskal idazle bakoitzaren bibliografía bat dator eta ondorean idazle berberaren euskerazko idazlan bat edo batzuk irakurleak idazle bakoitzaren izkribitzeko tankera ezagutu dezan. Azkenean hiztegui eta aditztegi bat datoz irakurlearentzat entelegarri eta adierreza izan dedin.

Bigarrena: «Amazonetako Indioak» haurrentzako da. Ipuin hau bere aurreko bezala («Balearen arrantza») gaurkoari dagokion haurren ezierari begiratuz azaldu da. Oso interesgarria da.

Bilbo'ko «Euskerazaleak» Elkargoa

Bilbo'ko Elkarte honek "Kili-Kili" izeneko 1972 garren urteko "Sariketa Haundia" eratu (antolatu) du.

Sariketa edo Leiaketa hontan Euskal Herri guziko haurrek parte ahal izateko dute. "Kili-Kili" delako haurrei euskal haurrei izkribitzeko eta irakasten ikasteko egiten kia da. Haur bakoitzak, bere etxean, inoren laguntzerik gabe, euskeraz idazteko tankerak errezki ikasiko ditu.

Parte hartu nahi duenak zuzenbide hauetara idatzi dezake: "Euskerazaleak" Colon de Larreategi —4— Bilbao, edo: "Euskera Laguna". Apartado 321-Eibar.

«Jakin»'en asmoak

"Jakin" delakoa Arantzazuko fraileen andurapean euskal liburuak argitaratzeko sortu zan. "Jakin" honen asmoak eta lanak askotan bere borondate onaren kontrakoan eta berak kulpaiñ ez izanik ez ziran egin eta ez zuten gorputzik hartu. Baño orain oztopo guziak gaindituz aurrera joaten asia dago etengabeko moduan lan eginez.

Agiri bat bere laguntzalei eta harpidedunei bidaldu die haren asmoak azaldu. Euskal kulturaren aldeko egintzak eta lanak egiten nahi tu. Horretarako «Jakin" euskal kultura lanerako talde iriki bat egin da. Bere kultura egintzak iru sailetan partituak egingo ditu: Bat "Jakin Sorta" deituko da, eta bestea "Jakin Liburu Sorta". Lehenengoa aldizkari (errebista) modukoa, hau da aldizkari baten dohazkioten gai guziak ikertu eta agertzeko da. Bigarrena liburuak izanen dira iru sailletan banakatuak: Historiaz, Gizarteaz eta Gogoetaz.

Alegratzen gera eta bere lanei zai gelditzen gera.

IKUSLE

KONTU KONTARI

ERLAMINAK

Batzuk erleztarra esaten diote; beste batzuk erlamina. Eraztun ori ta beltzak izaten ditu, ozkada gaiztoa du eta berrogei ta hiru izen beintzat ba ditu euskeraz.

Sorginen mutilik hoberena omen zen. Lepoko bilduma txiki batean erematen omen zuten. Biidurgarriak ziren.

Senar emazte batzuei izaten zituzten haur guziak hiltzen izan behar zaizkien. Ongi ekarri mundura eta egun gutxi baino lehen banan banaka denak hilak. Apezarengana joan eta beren zoritxarra jakinarazi ondoan, buruan sartua zuten susmo txar bat esan zioten. Aldeko emazte baten bildur ziren.

Apezak atso xaharra deitu eta galde modu asko egin zizkion, eta azkenean nun aitortzen dion bere mandatarien gauza zela etxe hartako zoritxarra.

—Eta nolaz baliatzen zera?

—Nere erleztarrak itotzen dizkiete haurrak.

Guraso haiek haurra izan zuten egunean ba dago herriko apeza haur txikiaren gelan, eta nun ikusten duen leiho zirritutik erlamina sartzen.

Eman horri! esaten du berak.

Nolabeit ere hil zuten erlamina. Haur hura ongi atera omen zen eta etxe hartan ez gehiago haurrik hil! Sorginak bialdua zen ta...

SAGI